

ALARGUNEN ETXEA



ARABA OSOA LUTOZ JANTZI ZENEKOA: 1564, ZORIGAITOKO URTEA

1564ko abuztuaren lehenengoa, goizeko hamarrak. San Juan inguruko etxe batek su hartu du. Etxe guztietara igaroko da sua pixkanaka, San Juan elizako teilatu eta kanpaiak harrapatuz ere, paretak bistan utziaz. Kea zeriola egon zen orduko Agurain egun oso batez. Gaueko hamarretarako herri osoa kiskalita zegoen, Santa Maria eliza izan ezik. Sutearen kea bezala hedatu zen Aguraingo herriaren erreketara Araba osoan zehar.

Aurretik baina, gutxi izan ez balitz, izurri beltzak egin zuen bisita. Ateak itxi zitzaizkion kanpotarrari, eta zabalik geratu ziren bietan - Ula eta Errege Atea- zentinelak jarri ziren, beste sarbideen giltzak herriko alkateari eman zitzaizkiolarik. Ganadu trafikoa ere debekatu zen. Izurriteak baina, Aguraingo ateak zeharkatu zituen, harekin batera biztanleriaren %40 eramanez. Hainbeste jende hil zen, non bi elizetako ate eta leihoak itxi behar izan zituztela, hildakoei zerien kirats izugarria zela eta, jasanezina baitzen.

Bi hondamendiak dokumentatuta geratu ziren Joan Perez de Lazarraga poeta arabarraren eskuizkribuan, hegoaldeko euskarazko testurik zaharrenean, "Aguraingo erreketara" delakoan. Hau da sutearen ondorengo eraikin zibil bakarra: "Alargunen etxea". XVII eta XVIII. mendearen artean erabat berritu zenez, atzeko fatxadaren beheko zatia soilik da erdi arokoa. XIV- XV. mendeetan eraiki zen eta antzinako gotorretxe bat dirudi. Arku zorrotzeko portada gotikoa nabarmentzen da, eta horren alboan dagoen gezi leihoa, etxeko orgen sarrera argiztatzeko, ziurrenik.